

107. zk.
2001eko azaroa



Gasteizko Euskaltzaindia



**GASTEIZKO
HORMEK
BADUTE**

ZER ESANIK!

ARABAKO EUSKAL HOTSAK ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA

ERAKUSKETA IBILTARIA

GASTEIZ A ITZULTZEN DA:

**UNIBERTSITATE-PABILIOIAN
ARABAKO CAMPUSA**

AZAROAK 6-26

ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera, 8.00etatik 20.30etara

ORAIN ARTE IBILITAKOAK:

**GASTEIZ, LAUDIO, AGURAIN, MAEZTU, ARTZINIEGA, ARGANTZUN,
TREBIÑO, ARAMAIO, IZARRA, GOPEGI, ZUHATZU KOARTANGO,
OION, LAPUEBLA LABARKA eta LEGUTIO...**

ETA GASTEIZEN OSTEAN: KANPEZU, ESKORIATZA...

**GURE LURRALDEKO HISTORIA,
ARABAKO EUSKARAREN HISTORIA ZABAL DADIN!**

107. zk. 2001eko azaroa

4-6. ORR.:

ZIZKA-MIZKAK. HILEKO GAIA.
GAZTETXEA (II)

7. ORR:

GEUgune: KanGeuroak, Geu Azoka,
GEUrekin Mendira...

9 ORR.:

LITERATURA (I) eta XUXEN ZOZKETA

11-16. ORR.:

HORMEN BOZA

17. ORR:

KOZKORTUZ zuek parte hartzeko
prest!

19-21. ORR.:

"SAKANAKO TIRALARIEN KEINUA"
JAPONIAN

25. ORR.:

LITERATURA (II) eta MUSIKA

26-27. ORR.:

KAOTIKO taldearen Mundo Kaotiko

29. ORR.:

ZEUK AUKERATU!

30. ORR.:

Iñigo Sarasolaren komikia

32. ORR.:

ARABA EUSKARAZ



URRIKO ALEAN ARGITARATUTAKO IKASTOLA eta ESKOLEN
INGURUKO ERREPORTAJEAREN ZUZENKETA eta OSAKETA
TXIKI BATZUK:

• UMANDI IKASTOLAren sorrera urtea: 1976

• ARKAUTOKO NEKAZARITZA ESKOLA. Sorrera urtea: 1853*
*Estatuko lehen nekazaritza eskola izan zen, ordutik garai desberdinak
izan dituelarik (Ikerketa-zentroa 20-25 urtez, XIX. mendearen bukaeran
itxi zen, gero abereak bildu ziren, ondoren patata... Egungo egiturekin
1970ean hasi zen.



GEU Elkartearen ekimenez egina
Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a •
Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es



Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. Erredakzio-batzordea: Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez.
Erredakzioa: Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. Argazkiak: Edorta Sanz. Bestelako irudiak-bilaketa: E.B. eta DAV. Testuen orrazketa: E.B. Maketa: Dalvez. Komikia eta logoa: Iñigo Sarasola. Araba Bixotzia: Agurtzane Villate. Kolaboratzaileak: Iñaki Zorrakin. Publizitatea eta Banaketa: Edurne Begiristain. Sustapen-harpidetza saila: E.B.Z., Edurne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) • Ale Kopurua: 2.500
LG: VI-582/92- ISSN: 1133-0988.

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu (Gasteiz) hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitaikoen erantzukizunik.



Eusko Jaureritzako
Kultura Saila



GAZTETXEA

Hileko gaia

GUZTION ETXEA,

GAZTETXEA DEFENDA

DEZAGUN!!!



Gasteizko muinoan bada duela hamairu urte eta piko "sorgindurik" dagoen etxetxo bat. Urte askotan zehar erabili gabe eta erortzeaz zegoen etxea zen. Gaur egun ere Gasteizek dituen hainbat beharrek bultzaturik okupaturiko etxea da. Gazte eta ez hain gazteen arazo eta ekimen ezberdinei bide ematen dien etxeaz ari gara: Gaztetxea, hain zuzen ere.

Bertan kultur eta aisialdi alternatiboak landu izan dira betidanik, instituzioetako eskaintza gidatuen aurrean, gazte eta herritar askoren ekimenari lehentasun osoa eman zaie gasteiztean. Sormen gunea da, edonorentzako ateak zabalik izan dituen beti (udaletxeko jarduerekin gertatzen ez dena). Biltzeko gunea, eztabaidarako gunea, aisialdia beste era batera aurrera eramateko gunea, jendearen

partehartze zuzena eta autogestioaren ildoei loturiko gunea, estamentu ofizialeetatik kanpo dauden gunea, beren lana ezagutzera emateko aukera ematen duena (Azken urtean 35 taldek erabili dute). Gasteizko herri mugimenduaren parte izateaz gain, bere tresna ere bada. Giza arazo, injustizia sozial eta kultur sormenean sentsibilizaturiko pertsona eta taldeek euren jarduera ezberdinak askatasunean gauzatzeko leku esanguratsua da. Auzoan errotutako gunea da, bertako biztanleekin harreman ezin hobea duena eta betidanik hauekin elkarlanean aritu dena.

Poterredunek ezarri nahi duten obedientziaren aurrean desobedientzia aldarrikatu nahi da, bertikaltasunaren aurrean horizontaltasuna, indibidualtasun eta konpetentzia basatiaren aurrean adiskidetasuna eta elkartasuna,... Boterearen

diskurtsoa eredu bakarra denean edozein alternatiba arriskutsu bilakatzen da eta hortxe kokatzen da Gaztetxea, pertsonen arteko harremanak garatzeko, eguneroko bizitza ulertzeko eta giza arazoei aurre egiteko eredu ezberdin gisa. Hau guztiagatik zilegi ez ezik, behar-beharrezkoa da Gaztetxea Gasteizen. Ezinbestekoa, Herri mugimenduaren etxea den heinean alternatiba sozio-kulturala delako eta zentzuzko gizarte justuago, langile eta alaiagoa lortzeko ahalegina ere badelako.

Honen guztiaren aurrean, zein da udaletxeko agintarien jarrera? Errepresioa eta inposaketa. Bestelako jarrerarik ez dute ezagutzen. Berriro ere, gasteiztar askoren nahi eta iritziei muzin eginez

Alonso eta bereek beren erabakiak inposatu nahi dituzte. Gasteizko Hirirako dituzten proiektuekin bat ez datorren mugimendu eta errealtate oro mapatik ezabatu nahi dute ahalik eta azkarren, kosta ahala kosta. Adierazpen ezberdinetan argi azaldu dute haien jarrera: "La finalidad que buscan los responsables del Gaztetxe no coincide con la que se persigue desde el Gobierno Municipal" (Alfonso Alonso dixit). Hirigintza Batzordean ere ez dira atzean geratu eta norbaitek zalantzarik ez izateko aurrekoari hau gehitu diote: "Queremos cerrar el edificio, no queremos que continue allí esa actividad". Argudio bikaina ez al da ala? Udaletxearen helburuekin ez datorren inork al du eskubiderik hiri honetan? Aniztasuna bermatu beharko lukeenaren ahotik absolutismoa besterik ez.

hileko iritzia

Gaztetxea eta honek suposatzen duen guztia erditik kendu nahi dute eta horretarako edozerk balio du, inongo lotsarik gabe gezurrak botatzen dihardute, eman ez diren "arazoak" etengabe plazaratzen dituzte. Auzoarekin bat lan eginez eta hitz eginez auzo elkarte zein udal-txearekin aspaldi adostutako kontuekin datoz orain. Berrero ere herritarrekiko duten distantzia eta ezagutza eza nabaria da, baita hauen ikuspuntuari ematen dieten garrantzia ere.

Ez dira inoiz Gaztetxeko kideekin elkarriketatzeko prest agertu. Gaztetxearen inguruko erabakiak beren kabuz ari dira hartzen inongo informazio zuzenik ez emateaz gain Gaztetxeko kide eta Alde Zaharreko bizilagunen galderei ez diete inongo erantzunik eman eta hau gutxi balitz, urriaren 16an ospaturiko Hirigintza batzordean parte hartzea galarazi digute, haien demokraziaren ideia zein den berrero ere agerian utziz. Gaur jakin dugu gainera, Gaztetxearen desalojoa tramitatzeari ekin diotela. Ez dute inongo lotsarik!!! Errespetua eta elkar ulertze hitzen esanahia aspaldi ahaztu dutela behin eta berriz ari dira



agerian uzten eta iraganean beren arbaso politikoengandik jasotako politika egiteko modua ondo ikasia dutela ari zaizkigu erakusten.

Asko eta asko dira Gaztetxetik hamahiru urte térdi hauetan pasa diren pertsonak eta bertan ekimen ezberdinak antolatu eta hauetan parte hartu dutenak. Belaunaldi ezberdinetako jendea pasa da etxe "sorgindu" honetatik gazte, ez hain gazte eta zaharrak baita ere. Sektore ezberdinetako taldeak aisialdi, musika,

antzerki, antimilitarismo, kontrainformazio, internazionalista, sexu askapenerako taldeak, ikasleak, euskara lantzen dutenak, feministak, errepresioaren kontrakoak, ekologistak, "antidesarrollistak", dantzariak, artisauak, langileak, okupazioaren aldekoak (noski),... Gaztetxearen parte izan dira eta gaur egun ere badira.

Guztion esku dago etxe honek eta suposatzen duen guztiak aurrera egitea edo ez. Gaztetxea guztion etxea da eta zentzu honetan bere defentsan ateratzea ezinbestekoa da, bakoitzak ahal duen neurrian, baina denak norabide berean. Poteredunek beren indarrez nahi duten guztia ezin dutela egin erakutsi beharra dago eta oraintxe dugu aukera ezin hobea. Imaginazioari eragin behar diogu, antolatzen diren ekimenetan parte hartu zein esparru ezberdinetatik ekimen berriak sortu; eta gogoratu eraikin soil bat baino askoz gehiago dago jokoan!!! Animo eta Aurrera!!!

**GAZTETXEAREN ETORKIZUNA
GUZTION ESKU DAGO!!!**

Gasteizko Gaztetxea

gastelZkinak

araba bixotzian



Ainhua, 2001-9-21.
Euskaldun berriak Gasteizen

Agurtzane Villate

ikusi-makusi

arg. Edorta Sanz



2001-10-1

naturaren isladak



ARABAKO
NATUR
INSTITUTUA

Iñaki Zorrakin



Ez da erraza azkonarra (*Meles meles*) ikustea. Are gutxiago korrikan. Baina benetako arriskuren bat hurbil sentitzen duenean ... Harritu ahal gaitu.

GEU AZOKA

Hemendik aurrera atal hau finkoa izango da gure orrietan: zerbait saldu, erosi, alokairuan jarri edota alokatu nahi duzula...? Eskola partikularren berri eman nahi duzula? Umeak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko lagun baten bila zabiltzala...?

HEMEN DUZUE EUSKARAZ EGITEKO AUKERA!!!
(Telefonoz edo posta elektronikoaren bidez)

• SALMENTAK-ALOKAIRUAK

Etxe bat salgai. 3 logela, 2 egongela (behekosu bana), sukaldea, komuna. Garaje-tailerra. 2800 metro karratuko lur-saila. Telefonoa. Lorategia. Oleta (Araba), Gasteiztik 27 km; Otxandiotik 3 km. Leku zoragarria, Urkiolako Parke Naturala oso gertu. Anboto eta Orisolpean. 27 milioi pta. **Dei 945 263 119** edo igorri mezua daviesti@inicia.es posta elektroniko helbidera.

• UMEAK-ETXEKO LANAK-ESKOLA PARTIKULARRAK...:

*Gurpildun aulkian dagoen emakume adindu bat paseatzaera eramateko **lagun euskalduna behar da** Gasteizen egunero, astelehenetik igandera, ordubetez aritzeko. Telefonoak: **943 46 71 81-943 28 50 07** (Marije).

*Neska euskalduna. **Umeak zainduko lituzke.** Magisteritzan diplomaturia eta umeekin esperientziaduna. Miriam (**656 76 15 88**)

• KANGEUROAK

Umeak zaintzeko prest zaudela? KanGeuroen zerrendan agertu nahi duzula? Deitu **945 22 21 53** telefono zenbakira -edo e-mailez- eta eman zure izena, telefonoa eta zehaztu zure ordutegia (egun osoz, goizez, arratsaldez, gauez, asteburuak...). Norbaitek KanGeuro baten beharra balu... hemen leukake aukera zurekin zuzenean kontaktuan jartzeko!!

- EGUN OSOZ: Miriam: **656 76 15 88**

- GOIZEZ - ARRATSALDEZ - GAUEZ - ASTEBURUAK

KULTUR ERROTA AZAROAREN 27an "UZTAIL OPARO OSTEAN"

Poesia eta musika uztartzen ditu proiektu honek, diapositiba muntaje batekin.

Taldea:

Harkaitz Cano: poesia errezitatzaileria.

Igor kalzada: ahotsa eta gitarra akustikoa.

Iñigo Lurgain: gitarra elektrikoa eta ahotsak.

PARRAL TABERNAN, 20.00etan



GEUREKIN MENDIRA

IKASTURTE BERRIAREKIN GEUREKIN MENDIRA TALDEAK ERE ESKAINTZA BERRIA DAKARKIGU MENDIAZ EUSKARAZ GOZATZEKO PARADA IZAN DEZAGUN. URRITIK HASITA (HIRUMUGARRIETARA ABIATU ZIREN) EKAINERA BITARTEAN EGITARAU OSATUA PRESTATU DUTE. HONA HEMEN, BERAZ, HEMENDIK AUERRERAKO PLANA:

- **AZAROA: IKUS. IRAGARKIA ORRI HONETAN**
- **ABENDUAREN 16AN: BADAIA (GOIZEKOA)**
- **URTARRILAREN 20AN: ALDAIA GEBARA (GOIZEKOA)**
- **OTSAILAREN 17AN: OTZAMENDI -ARNABA- (GOIZEKOA)**
- **MARTXOAREN 17AN: UREDERRA (GOIZEKOA)**
- **APIRILAREN 21EAN: ARAIA ZEGAMA (EGUN OSOKOA)**
- **MAIATZAREN 19AN: BALERDI (EGUN OSOKOA)**

HIRUMUGARRIETA



LIZARRAGA



GEUREKIN MENDIRA. AZAROKO IRTEERA

**JARINDO eta
ALBERTIA
AZAROAREN 18an**

IRTEERA:

goizeko 9.00etan,
Txapela tabernaren
aurretik (Prado kalean)
Goizeko irteera

Informazio gehiago: Bego, 945 266812

Halakoak NOIZ arte?

- Gasteizko XXVI. NAZIOARTEKO ANTZERKI JAIALDIA...

...Bi obra baino ez euskaraz!;!;

- Azaroaren 11n:

Alizia bitxikerien lurraldean

(Dar Dar produkzioak). Umeentzat

- Azaroaren 17an: **Errudun jaioak** (Tanttaka)

GEU elkartearen posta elektronikoa: geuelkartea@grn.es
Gogoratu aldizkariarena: geugaste@grn.es

GEU aldizkarian iragarritz, euskara bultzatu. Mila esker!! Iragar zaitez: 945 22 21 53

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

IZTABERNA
RATETXEA

BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73

MARRAZKIAK • KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

IZTABERNA

Erquiditan, astelenerdik ostialara
JANTOKI
BEGETARIANO

SAN FRANTZISKO XABIERKOAKEN KANTOA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL. 945 27 68 33

MIKO

Izozkiak

Obren egite eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azerlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behe - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobila: 639 81 51 30

azkarprint
Imprenta / Inprimategia

Helbide berria....

Landazuri, 7

♦ INPRIMATEGIA ♦ Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ

ARANBIZKARRA

ZURE
AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

Zure begiak, gure kontu

PROFESIONALITASUNA ETA ZERBITZUA

Aditurik onenek eta azken-azkenengo teknologiak bakarrik berma dezakete ongi egindako lana. Zerbitzu osoa, norberaren neurria, hurbila eta saiataua.

Horixe duzu gure konpromisoa.

ZERBITZU OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

ELKARLANEAN ARGITALETXEAREN ESKUTIK...

Izenburua:

India harrigarria

Egilea:

Gotzon Garate

Bilduma:

Literatura 213

Orriak: 232

Salneurria: 2200 pta.

Data: 2001eko iraila

"Lurralde miresgarririk, amesgarririk ikusi nahi baduzu, zoaz Indiara", esaten digu egileak liburuaren hasieran. India sakratua, India misteriotsua, fakirren, Budaren, behien, kasten lurraldea, zeruaren ederra eta infernuaren latza elkartzen dituen herria; mendebaldeko gure zibilizazio praktiko eta moderno honen guztiz bestelakoa.

Hindi hizkuntza ikasteko asmoz joan zen Gotzon Garate Indiara: Ahmedabad, Ranchi, Kalkuta, Bonbai, New Delhi, Varanasi eta beste hainbat bazter ezagutu

zituen bertan. Baina batez ere jendea, jendea, jendea: talde handiak, samalda izugarriak nonahi pilaturik; gizarte zabal, ñabar, askotari-ko horren barruan, ordea, pertsonak daude: hezur-haragizko gizon-emakumeak, beren poz eta atsekabeekin, beren ohitura eta beren gora-beherekin.

Jendearen istorio eta bitxikeriekin osatu du egileak liburu hau, Indiaren alderdi harrigarria marrazten diguna; ez da hor makurkeriarik falta, hala nola emakumeen bazterketa, haurren miseria edo kasten arteko arrazakeria, baina ilun horrek berezkoa du argia ere: bizi-pozez eta bihotz zabalez hornituriko Indiako gizateria.

Gotzon Garate (Elgoibar, 1934), euskal idazle oparoa eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea, munduko lau bazterretan eta Euskal Herriko probintzia guztietan ibilia da.

Ugari bezain askotarikoak ditu liburuak: marxismoaz, euskal eleberrien kondairaz, atsotitz eta esaera jatorrez... Literaturako sorkuntzaren barruan sona handia eman zioten polizi eleberriek: Esku leuna, Alaba, Elizondoko eskutitzak, Goizuetako ezkongaiak, Izurri berria... Aipatu beharrekoa dugu, halaber, kronika honen aurrekaritzat jo dezakegun liburua: New York, New York.



ELKARLANEAN LEHIAKETA

LEHIAKETA HONETARAKO ORAINGOAN GEU ALDIZKARIAREN INGURUKO IRITZIAK eta IRADOKIZUNAK ESKATUKO DIZKIZUEGU: aurtengo aleen inguruako iritziak, proposamen interesgarriak, aldizkariak falta duena, soberan duena...

KRIKA KONSTRUKTIBOENAREN EGILEARI EMANGO ZAIO SARIA!!

Bi saridun

ZORTE ON! BIDALI POSTAZ EDO E-POSTAZ

BETIKO SUKALDARITZA INGURU ZORAGARRIAN



ITURRIETA

Sagardotegia

OSTEGUNETIK IGANDERA

22.00etatik aurrera


Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85

ARAMAIO

XUXEN ZOZKETA

**ADI HARPIDEDUN
eta BAZKIDE!**



**XUXEN, EUSKARAZKO
ZUZENTZAILE
ORTOGRAFIKO**

ESKURATU NAHIKO AL ZENUKE?

ORAIN DUZU AUKERA: ZUK GURI HARPIDEDUN edo BAZKIDE BAT (lagun bat, senide bat, auzoko bat...) OPARITU ETA GUK ZURI XUXEN ZUZENTZAILE ORTOGRAFIKO OPARITUKO DIZUGU! ETA HONEZ GAIN, SORPRESA BAT!

ERNE IBILI! DEITU AZKAR **945 22 21 53** telefono zenbakira, EMAGUZU HARPIDEDUN BERRI HORREN IZENA, ETA LASTER IZANGO DUZU XUXEN ZURE ETXEAN!

**EZ GALDU AUKERA ETA DEITU
AGORTU BAINO LEHEN!!!
ARGI IBILI, GERO ETA GUTXIAGO
GERATZEN DIRA-ETA!**

NON BAIT

ZURE
EUSKAL
DENDAK

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxa: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

BUZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

**KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA**

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



**JANTZI
ETA
OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ



OKOA!

arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!

Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko artean)
Tfnoa: 945 25 03 52

**Confecciones
Pinedo**
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

PLATER MIMATUAK...

**EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!**



Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74



**BEIRATE
ESTUDIOA**

**MIKEL
DELIKA**

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

Argazki - Estudioa

Erramun

Heraclio Fournier, 23
Tfnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 26 19 91
01004

HEGOALDE
Euskaltegia



Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behe
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ


ARTEPAN



**Artisau
Okindegia eta
Goxotegia**

Jesús Guridi kalea, 2
Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

RAFA TEJA ATELIER



*"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuak"*

- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa.: 945 13 33 59

Hormen Boza

Testua eta argazkiak: **Edurne Begiristain**




ARTEA HORMETAN.



EUSKAL HERRIAK PAIRATZEN DUEN GATAZKA POLITIKOAREN ISLA DA PRESOK KALERATZEAREN ALDARRIKAPENA.




GURE HIZKUNTZARI EGUN DUENA BAINO ASKOZ ESPAZIO HANDIAGOA DAGOKIO.



EUSKAL HERRIA aurrera!!

LURRALDE ZATIKETAREN AURKA, SEIRAK BAT ALDARRIKATZEN DUTENAK ASKO DIRA GURE HERRIAN.

"AITAREN ETXEA"
DEFENDATZEKO DEIA
AMETSA IZAN DAITEKE...
EDO ERREALITATEA.



EL CIRCOTORTURA



UDALETXEA
ETA DIPUTAZIOKO
BALKOJETAN



ANARKISTAK BIZIRIK.




EUSKAL LANGILERIAK GIZARTEA
ALDATZEKO ETA BORROKATZEKO
DUEN GAITASUNEAN SINESTEN DUTE
ASKOK.



EEBBEK AFGANISTANEN
AURKA HASITAKO GERRAREN
KONTRAKO OIHUAK UGA-
RIAK IZAN DIRA. HONA
HEMEN HORIETAKO BAT.




TORTURA KASUAK ABUZTUAN ETA IRAILEAN.



BADIRA GAUZAK ADIERAZTEKO HAMAICA MODU.
GRAFFITIEK, ADIBIDEZ, KOLOREA ETA IRUDIME-
NA DUTE OINARRI... BEREN ESANAHIA JAKITEA,
ORDEA, LAN ZAILAGOA IZAN OHI DA MAIZ.



DENETIKOAK: ALDARRIKAPENAK, KONTZERTUAK, JAIK...




GERRARIK EZ! ALDEA GLOBAL SOLIDARIA

.."Mendebaldeko filmetan bezala: HILDA EDO BIZIRIK bilatzen da" G. Bus

Mendebaldeko filme bat balitz bezala besteen bizitzarekin jolasten du


GERRARIK EZ;



ERROTA ZAHARRA-N
ERAIKITZEN ARI
DIREN ZABORTEGIA
DELA ETA, AUZOA
BORROKAN.



GIZARTEARI EGITEN ZAION OSO GALDERA ZUZENA.



EMAKUMEEEN HITZA, "KALEA, GAUA, GUREAK ERE BADIRA".



GASTEIZKO 'Z' MISTERIOTSUA EDOZEIN TOKITAN AGERTU ZEN DUELA HILE BATZUK, ETA ORAINDIK HAREN ARRASTOAK IKUS DAITEZKE.




LEHIOAK ERE ALDARRIKAPENERAKO LEKUA DIRA.



"KONTUZ!, E\$PEKULADOREAK SOLTE... GASTEIZKO IZURRIA"... HONEN AURKA: "CUCAROL, ESPEKULAZIOAREN KONTRA, ETXEBIZITZA DUIN BATEN ALDE".



HITZ BAKARRAZ ASKO ESANEZ. IRAULTZA / GARAPENA... HOR DAGO KOSKA!



EMAKUMEE N BORROKA: AGRESIOEN AURREAN, ERANTZUN!



AUZO BATEN NAHIA.



ANARKIA ERRESPECTUA DA.



DEMOKRAZIAN GEHIEGI SINESTEN EZ DUTENAK BADIRA,
BAITA HISTORIAZ ASKO DAKITENAK ERE.



ANTIMILITARISMOAK BIZIRIK DIRAU.

12-0
Fiesta Nacional
de España
Prohibida por el
Gobierno Vasco
¡la Convocatoria
se mantiene!
12 Oct. 2000 - 12 horas.
Plaza de la Virgen Blanca - Vitoria
¡ACUDE!
Blanca por la Unidad Nacional
nueva Sede Nacional:
calle Ibilza, 37 - bajo centro izda.
3009 Madrid - Tel.: 91 504 37 91

12-0
Fiesta Nacional
de España
Prohibida por el
Gobierno Vasco
¡la Convocatoria
se mantiene!
12 Oct. 2000 - 12 horas.
Plaza de la Virgen Blanca - Vitoria
¡ACUDE!

URRIAREN 12A, BATZUENT-
ZAT, OSPAIZUN EGUNA DA.
HARRIGARRIA DA IKUSTEA
NOLA GISA HONETAKO
KARTELEK URTEBETE IRAUN
DUTEN.




ARTEA HORMETAN.

Edorta Sanz




JENDE GEHIENAK BEZALAXE, ARGAZKIKO EMAKUMEAK ERE EZ DU OSO ONGI ULERTZEN ZER ESAN NAHI OTE DUEN AZKEN BOLADAN GASTEIZKO ZENBAIT PARETATAN AGERTU DEN DITXOSOKO PEAPEAPEA... HORREK. NOIZBAIT JAKINGO AL DUGU?



EUSKARAZ ONGI IDATZITA BALEGO...



DENETIK AURKITZEN DA: SENIDEEKIKO MAITASUNAK MUGAK APUR DITZAKE. BEGOK ETA LAURAK ASKO MAITATZEN OMEN DUTE ELKAR...



TORTURA: POLTSA, KOLPEAK, BILUZARAZTEA, ELEKTRODOAK, HILTZE-MEHATXUAK, IRAINAK...



ARTEA HORMETAN.

Edorta Sanz

KOZKORTUZ

KOZKORTUZ BERRIA MARTXAN...

ADI UMEAK!, HEMENDIK AUERRERA
HAU DUZUE ZUEN KONTUTXOETARAKO
TXOKO ZUZENA:

- MARRAZKI BAT,
- PROPOSAMENAK BILTZEN DITUEN GUTUNIK,
- OLERKI EDO BERTSO BAT,
- IPUIN BAT,
- ASMAKIZUN BAT,
- ERREZETA BAT,
- KOMIKI BAT,
- ZUEK EGINDAKO ARGAZKI BAT...



...BIDALI NAHI DIGUZUELA?

Edota KOZKORTUZ
irakurtzen duten beste
umeak agurtu, lagun berriak
egin nahi dituzula?

HEMEN DUZUE AUKERA!!!

*Lanekin batera, izen-abizenak eta urteak zehaztu (nahi baduzue zuen argazkia ere bidal dezakezue) eta postaz edo e-postaz igorri, hilaren 15a baino lehen.



GASTEIZKO HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA



"SAN FRANCISCO
JAVIER" KANTOIAN

Xabier

taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23

**Euskara
bultzatu
nahi?...**

945 22 21 53

**BAR
KLAKÉ**

KUTXA, 2
TFN.
143883



"Zure ametsak egia
bihurtzen diren tokia"

IBAIZAR BASERRIA, 4
SOJO-ZOLLO · 01478 ARABA

Tel/Faxa: 945 396 686

www.euskalnet.net/eskutxi

E-Mail: eskutxi@euskalnet.net

MERKURIO-KADIMIOAN
%0a

CEGASA PILAK
INDARTSUENAK
ETA
EKOLOGISTENAK



CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

ametsak

Kañamo Denda - Grow shop

C/ Herreria nº38 01001 Gasteiz

Tel-Fax: 945 26 46 43

LIZARRALDE SOINYA

TXALAPARTA, S.L.

945 226 977

GASTEIZ

SOINU PROFESIONALA • MEGAFONIA
ESPASIO HAUNDIEN SOINUZTAPENA



Sakanako sokatira taldeko kidea **AINARA RAZKIN:**

**“Tiralariek ez zuten
ulertzen nola onenak
izanik Euskal Herriak
ezin zuen parte hartu
txapelketan”**



Testua: Josune Velez de Mendizabal
Argakiak: Aina Razkin



Duela urtebete pasatxo hasi zen Aina Razkin gasteiztarra Sakanako Sokatira taldean; tiralariak falta zituzten eta Arbizuko jendea ezagutzuz behar bestetan bertara hurbiltzea erabaki zuen. Sokatiran aritzeko erabaki honek gainontzeko hamahiru nafar neskekin batera Akitara (Japonia) bidaiatzeko aukera eman dio. Baina bertan Mundu mailako Sokatira Txapelketan lehiatuz gain -baita irabazi ere- gure kirolari hauek euskal nortasuna tentu bereziz zaindu eta barreaitu dute munduan zehar.



• **ORAIN ARTE SOKATIRA TALDEAK TXAPELKETETARA BIDAIAITU DUENEAN ESPAINIAKO ORDEZKARI BEZALA PARTE HARTU DU; AURTEN AKITARA JOAN ETA BERTAN KONTU HONEKIN ZENBAIT GORA-BEHERA IZAN DIRA...**

Bai, betiere Espainiaren izenean joan badira ere -nire lehen aldia baita- txapelketetan nolabaiteko paktua egon da TWIF (Nazioarteko Sokatira Federazioa) eta gure artean: TWIFaren ereserkia jartzen zuten eta listo. Baina aurtan ez da horrela izan eta Espainiakoa jarri ziguten...

• **HORRELAKO EGOERA BIZI ZENEZAKETELA JAKINDA BA AL ZENEUKATEN NOLABAITEKO ERANTZUNA EDO ERREAKZIOA PREST?**

...Ez,... egia esateko, beti galdeztzen diozu zure buruari horrelako egoera baten aurrean, zer?, baina ez geneukan alde zuretik pentsatuta zelako irteera eman plan teamendu honi...

• **GAUZAK HORRELA, ZUEK PODIUMEAN ZAUDETE URREZKO DOMINA JASOTZEKO PREST ETA ESPAINIAKO HIMNOA ENTZUTEN DUZUE...**

Gure entrenatzaileak, Jokin Razkinek, podiumera atera baino lehen epailearekin hitz egin zuen bandera eta ereserki espainolak jarriko ote zituzten gaiaren inguruan, eta horrela izatekotan gu ez ginela igoko esan zion, baina momentu horretan gure izena aipatu zuten eta dena bat-batean izan zenez hasi ginen igotzen; behin goian geundela mikrofono-

"Instituzioen babes eza sentitu dugu"

tik entzun genuen himnoa eta orduan ikurrinak atera eta jaitsi ginen.

• **BAZEUKATEN BERTAKO ANTOLAKUNTZAKO EK EUSKAL HERRIA ETA BERE EGOERAREN BERRI?**

Ez dut uste, zeren eta presidentea zoroaren pare igo zen podiumera guk utzitako ikurrinak kentzera. Aurtan olinpiadak dira eta sokatira olinpiaden barnean sartu nahi dute, hortaz gertatutakoak presidentearen haserrearen piztu zuen.

• **PRESIDENTEAREN HASERREK ONDORIO LATZAK EKARRI ZITUEN EUSKAL HERRIKO GIZONEZKOEN SOKATIRA TALDEAREN ZATIA, EZTA?**

Bai horrela da, egin genuena gure erabakitza hartu beharrean Euskal Herriko mutilen jokabidea ere izan bailitzan hartu zuen. Hori dela eta, mutilak deitu eta esan zieten Espainiako selekzioaren izenpean parte hartzen ez bazuten ez zutela parte hartuko eta beraiek esku hartu ahal izateko sinatzea erabaki zuten. Baina presidentek maltzurkeriaz jokatu zuen, zeren eta sinatu ondoren ez zien txapelketan esku hartzen utzi. Hortaz, mutil batzuk gurekin "pikatu" ziren.

• **ZEIN MOTATAKO ERANTZUNA JASO ZENUTEN HANGO JENDEAZ, PARTE-**



HARTZAILEETATIK, ALEGIA?

Oso ona, gainera jendeak oso ondo hartu zuen eta arrazoiak azaldu eta gero ez zuten ulertzen nola guk ez genuen parte hartu behar hurrengo eguneko txapelketan; 'baina nola ez?... you are the best' esaten ziguten japoniarrek. Sakana aurreko urteetan ere txapelketan aritu denez jende asko ezaguna zuten, eta ez zen 'rollo' txarrik egon.

• **ETA BEHIN EUSKAL HERRIRA HELDU ZINETENEAN ZELAKO HARRERA IZAN ZENUTEN?**

Instituzioen babes eza sentitu dugu, inork ez zuen deitu, eta -zenbait komunikabideren kasuan izan ezik- hedabideek ere gertatutakoaz ez zuten ezer esan... Guk Euskal Herriko jaso ditugu dirua eta laguntza guztiak eta Espainiak ez digu ezer eman, beraz, ez diogu ezer zor, baina babesik gabe sentitu gara. Bestetik, hona iritsi eta aireportuan egin ziguten harrera eta geroko omenaldia oso oso onak izan dira.

"Japonian txikitatik hasten dira haurrak sokatira egiten"





Antza, euskaldunen teknika onena da eta ikusmira sortarazten du

SOKATIRA: HERRITIK MUNDURA

Betidanik sokatira euskal herri-kiroltzat jo bada ere, mundu mailako txapelketa lehiatu dela gogoan hartuz Euskal Herritik at sokatira landu ohi duten beste hainbat lurralde badela ere aipatu behar da. Hori dela eta, munduan gero eta gehiago hedatzen ari den kirola dugu sokatira, hala nola, aurtengo Akitako Txapelketan, neskei dagokienez, Holandak, Japoniak, Txinak, Taipei, Australiak, Hegoafrikak eta USAk parte hartu dute. "Nahiz eta hemen zabalduen egon, mundu osoan barrena barreiatzen ari den kirola da", dio Razkinek, "izan ere, Japonian txikitatik hasten dira haurrak sokatira egiten; bestetik, USAn ere aritzen dira baina hauek daukaten arazoa taldekide bakoitza punta batean bizi dela da, eta entrenatzeko kilometro ugari egin behar dute".



- Ainara Razkin Barandiaran
- 1980ko urtarrilaren 29an Gasteizen jaioa
- Geologiako ikasketak burutzen ari da
- Sokatira, mendia, kirolak oro har...
eta juerga, noski, ditu gustuko.

Antza, euskaldunen teknika onena da eta ikusmira sortarazten du: "Nire lehenengo urtea da munduko txapelketan parte hartzen dudana, baina nire taldeki-deek kontatu didatenagatik urte batetik bestera gaitzetzeko partehartzaileek tiralari euskadunon teknikak-eta hartu ohi dituzte; adibidez, iaz gerrikoa darماغula ohartaraztean aurten beraiek ere erabili dute. Are gehiago, aurtengoan entrenatzen hasi eta gu inguratzen jarri ziren talde guztiak, argazki eta guzti atera zituzten, exageratua izan da..."



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



arabarrok euskarari BAI



www.gazteabertzaleak.com



ERROTA

HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 – GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

DONIBANE GARAZITIK 01-10-21

DONOSTIARA 01-12-16

Euskal

Herriko

Bertsozale

Elkartea



FINAL-AURREAK

**ETXARRI-ARANATZEKO
UDAL PILOTALEKUAN
AZAROAK 17
18:00ETAN**

**MARKINAKO
UDAL PILOTALEKUAN
AZAROAK 18
17:00ETAN**

**AZPEITIKO
IZARRAITZ PILOTALEKUAN
AZAROAK 24
18:00ETAN**

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2001

**AZAROAK 25
HENDAIAKO
BELTZENIA PILOTALEKUAN
16:30ETAN**

**ABENDUAK 1
BILBOKO
AYALA ANTZOKIAN
18:00ETAN**

**ABENDUAK 2
TOLOSAKO
BEOTIBAR PILOTALEKUAN
17:00ETAN**

SAIL BERRIA, SAIL BERRIA, SAIL BERRIA, SAIL BERRIA EUSKALGUNE, TOPAGUNE!

GEU ALDIZKARIAREN TXOKO BERRIA DUZU HAU:

EUSKALDUNOK, EUSKALTZALEOK HAN ETA HEMEN BATU GAITZAKEEN TXOKOA, GUNEA... ZURE PROPOSAMENETARAKO TARTEA!

"Euskaldunen arteko harremanak bultzatzeko eta euskaraz egiten diren ekitaldiak aurkezteko" ZURE TXOKOA!

Guk hileroko agendan dakarzkizuegun euskarazko ekitaldiez gain, ziur gaude askok eta askok ihes egiten digutela...

...Horregatik, GASTEIZKO EUSKARAZKO ESKAINTZA KULTURALARI DAGOKION GARRANTZIA EMAN NAHIAN, IKASTURTE BERRIAREKIN SAIL HAU IREKI NAHI IZAN DUGU, EUSKARAZ GOZATZEKO AUKERA GERO ETA ZABALAGOA IZAN DADIN.

BERAZ, ZURE AUZOAN, ESKOLAN, LANTOKIAN, ELKARTEAN, EUSKALTEGIAN... EUSKARAZ EDOTA EUSKARAREN ALDE EGINGO DEN EKITALDI HORRETARA GUZTIOK JOATEKO AUKERA IZAN DEZAGUN, BIDALI HONA INFORMAZIOA.

HAU DA ZURE GUNEA, GURE GUNEA, EUSKALGUNEA!

ORAIN HUTSIK DAGO... BETE DEZAGUN, BA!



Bacalao Giraldo

- Eguneke makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

IRUSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ



eguneko

LA RIOJANA

jatetxea

on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39



Obdulio Lpz. de Uralde
Margolaria, 5

Tel. 945-22 65 47 • Fax. 945-26 50 16

01008 Vitoria-Gasteiz

GEU

aldizkaria
etxean
jaso nahi?...

...

945 22 21 53

Garagardotegia

Ostiraletik
Igandera
IREKITA
(astelehenetik
ostegunera
itxita)

La Blanca

* Oilasko
erreak

* Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz

XIXILU
JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ



Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

EUSKAL LABELA LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 • Gasteiz

Udaberria

euskaltegia

- Euskalategi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

"Herri kirolak eta herri
jolasak kultura dira"

K U L K I

Tlf.: 945.139.699

TXALAPARTA argitaletxea

“BERO HEZEAK”

Basauriko Euskarabila
Elkarteak urtero antola-
tzen duen euskarazko
ipuin erotikoen lehiaketa-
ko orain arteko saridunak
eta ipuin nabarmenenak
biltzen dituen liburua.




“BERMEO BASATIA”

Paul Henri Capdevielle.

Begoña Bilbaok euskaratua.

1912an euskal kostaldea
gogor astindu eta Bermeon
116 arrantzale ito zituen
galarrenaren inguruko ele-
berria da, 1922an frantse-
sez argitaratua.



Arantza Lopez Maruganen - CUERDAS REBELDES liburuaren ZOKETA IRABAZLEA: MIRYAM GAZTELUMENDI. ZORIONAK!



ELKARLANEAN.

IGELAREN BANDA

(bixente martinez. txarli de pablo. iñigo egia)
Euskal doinu eta erritmo tradizionala abia-
puntu harturik doinu berriak sortzen dituen
lana, era librean garatuta, jazz edo musika
berrietatik ikasitako ereduak erabiliz.

ANJE DUHALDE

George Brassensen kantari

George Brassens poeta, idazle, konpositore
eta kantari iraultzailea izan zen.

Anje Duhaldek txiki-txikitatik jaso du George

Brassens-en eragina eta honen obraren jarrai-
tzaile porrokatua izan da betidanik. Orain,
bere heriotzaren 20. urteurrenean aurkezten
dugun disko hau, haren oroimenean buruturi-
ko lan fin eta berezia da.

...pertsonaren duintasunaren aldeko borroka
unibertsala eta etengabea delako...

OIHUKA

4 ITZAL

Etzakit taldeko Xabier Solano abeslariaren
proiektu berria. Punk-rock inguruko doinuak
astintzen ditu 4 Itzalek.



JON. Kaotiko taldearen ahotza:

“Manager on bat izateak ate asko irekitzen dizkizu”

Urtebeteko bizitza eskasa badu ere Kaotiko taldeak jada bere burua ezagutaraztea lortu du, kontzertu ugari eman baititu. Orain, gainera, La Pollak utzita-ko bideari eutsiz, “Mundo Kaotiko” beren lehen diskoa kaleratu dute. Bertan agertzen diren abestietatik hamar berriak badira ere, gainontzeko hirurak Kaos Etiliko-ren ondare dira.

Josune Velez de Mendizabal

• **KAOTIKO TALDE BERRIA IZAN ARREN, ZUEK ESKARMENTU HANDIKO PERTSONAK ZARETE MUSIKA MUNDUAN, EZTA?**

Taldekide guztien artean ni naiz esperientzia gutxien duena, baina gainontzekoek denbora daramate mundu honetan. Izan ere, Aguayo eta Aguayiko anaiek, baita Fontak ere, Kaos Etiliko-n jotzen zuten, eta behin taldea uzten dutela musikarekin jarraitu nahian beste bi lagun bilatzea erabakitzen dute. Bi horietatik, Xabi bateriajolea trikitixa eta berbenetan jotzen ibili da eta bestea ni neu, Katangan ahotza eta gitarra klaseak hartzen egon naizena.

• **NOLA HASI ZINEN ZU MUSIKA MUNDUAN?**

Egun 20 urte dauzkat eta txikitatik egon naiz musikarekin harremanetan; nire osabak soinu ekipoak ditu eta hauek jartzen eta muntatzen ibili naiz. Gainera, La Polla-ko soinu ekipoarekin lan egiten du osabak.

KAOTIKO



• **ZUEN AURKEZPENAN AGURAINGO ESKOLAKOAK ZARETELA BEHIN ETA BERRIRO AZPIMARRATZEN DA...**

Eskola fisikoa ez badago ere, La Polla oso ezagunak dira eta betidanik existitu direnez gainontzeko taldeak beren bidea jarraitu nahian gabiltza. Aguraineko jendea elkarren artean ezaguna da; hori dela eta aipatzen da hainbatetan Aguraingo eskolakoak. Hala nola, Fontak La Polla-n jotzen du eta Aguayok zortzi urte daramatza beraiekin dagoeneko; honek, azken finean, harremanak estutzen ditu La Polla-koekin.

• **PUNK-A INOIZ HILTZEN EZ DEN HORIETAKOAK ZARETELA ANTZEMAN DAITEKE; IZAN ERE, 20 URTE DIRA ERRITMO HAUEK JAIO DIRENETIK ETA GAUR EGUN ZUEK GAZTEOK, ORAINDIK ERE, EKITEN DIOZUE MUSIKA MOTA HONI...**

Punk-ak bere gora-beherak izan ditu, eta batez ere has-tapenetan bizimodu bat bazen ere, orain, berriz, modatzat har dezakegu; hala eta guztiz ere, jendeak gustuko duen bitartean punk-a ez da inoiz hilko. Gure publikoa gaztea den arren, jende nagusiak ere entzun du gure musika eta gustatu zaio. Gure kantetan abesten duguna edonori gerta dakioke. Izan ere, beste egunean gizon bat harrituta zegoen gure musika entzun eta ez zuelako espero gustukoa izatea, zeren doinu punkiak izateaz gain, abestiek ezer gutxi esango zutela pentsatzen baitzuen, eta gure letrak zentzuzkoak direla aditzean harrituta gelditu zen.

• **ZUEN ABESTIEN LETREK KRITIKA ETA GIZARTEAREN SISTEMAREKIKO KONTRAKOTASUNA ISLATZEN DITUZTE. ZUEK ZARETE EGILEAK?**

Kantak talde guztiaren artean burutzen ditugu, planteamenduak gureak dira eta behin ideiak eta gidoia eginda dugula Evaristori pasatzen diogu; berak lotzen baititu pentsamendu horiek guztiak hitzetan. Bestetik, musika guk geuk egiten dugu.

• **NORAINO HELDU NAHI ZENUKETE MUSIKA MUNDUAN?**

Beno hortxe ditugu 'Los pollos'..., hor egon dira 20 urtez eta gu 40 urte bete arte egon ahalko bagina horrela ba primeran...

• **ZER IRIZTEN DIOZUE GAUR EGUN DAGOEN PANORAMA MUSIKALARI?**

Lehiakortasun handia dago. Gainera, salmentetan asko "pirateatzen da"... eskaintza ugari, talde asko... eta, noski, gazteak bakarrik 2000 pezeta ditu konpaktoa

"Lortu nahi duguna da jendea letrak entzun ahala gauzak alda daitezkeela kontura dadila, eta modu baikorrean pentsa dezatela..."



KAOTIKO TALDEA

• **2000KO UZTAILEAN JAIO**

• **TALDEKIDEAK:**

AGUAYO ETA AGUAYIKO (GITARRAK), FONTA (BAXUA), XABI (BATERIA) ETA JON (AHOTSA)

LEHEN DISKOA:

MUNDO KAOTIKO



erosteko! Baina gustuko duzuna ondo egitea da inportantea, eta gainera manager on eta ezagun bat izateak - gure kasuan Evaristo den bezala- ate asko irekitzen dizkizu.

• **ORAIN ARTE ESKAINI EZ DEN ZER ESKAINI NAHI?**

Gure musika oso erraza baina hel-tzen den horietakoa da, doinu eta letra azkarrak, erraz ikasten direnak...

• **KAOTIKO, MUNDO KAOTIKO..., HITZ BERA ASKOTAN. ZER DA KAOSA ZUENTZAT?**

Telebistan ikusten duguna eta inguratzen gaituena da kaosa, telebistatik jaten duguna, hori dena kaotikoa da...

• **HORTAZ, KAOS ETA EZINEGON HORRI AURRE EGITEKO ZUEN BEZALAKO TALDEAK JENDEAK BEGIAK IREKI DITZAN BEHARRERZKOAK IKUSTEN AL DITUZUE?**

Guk ez dugu ezkorrak izan nahi dena bukatuta balego bezala... Lortu nahi duguna da jendea letrak entzun ahala gauzak alda daitezkeela kontura dadila, eta modu baikorrean pentsa dezatela...

KAOTIKO-K ESKAINIKO DITUEN KONTZERTUAK

- **Azaroaren 2an:** Eraso eta Sen-ekin batera Barañainen.
- **Azaroaren 9an:** La Polla eta konfirmatzeke dagoen talde estatalarekin Bergarako Jam Aretoan.
- **Azaroaren 16 eta 17an:** Madril eta Bartzelonan Kaotikoren aurkezpena.

Eta datorren urtean: La Polla taldearekin 'tour-a' egingo dute Estatutik.

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

XABIER KIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97

*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*



Zure denda erotikoa

SEX

PITTILIN GORRI

Sexua
euskaraz
bizi



GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan

Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA

OIARTZUN

adaka
madinabeitia



Floridako altxorra !

35

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 · GASTEIZ

TALLERES en CASTELLANO
"LAS SIGLAS DEL SIGLO XXI"
EL MOVIMIENTO Anti- GLOBALIZACIÓN
 Noviembre 2001

EUSKARAZKO TAILERRAK
"XXI. MENDKO SIGLAK"
ETA GLOBALIZAZIOAREN
AURKAKO MUGIMENDUA
 2001eko Azaroan

Setem
 HERRI MUGIMENDUA

• **SETEM.**
Hego Haizea-
ren eskutik:

EUSKARAZKO
 TAILERRAK:
 "XXI. mendeko
 siglak eta globa-
 lizazioaren aur-
 kako mugimen-
 dua"
 Azaroaren 5etik
 14ra Landatxo-
 n. Orduetgia:
 19.00-21.00
 Informazioa:
 945 12 07 46

• **HERRI MUGIMEN-
 DUARENTZAKO
 FORMAZIO
 IKASTAROK
 INFORMAZIOA:
 JOXEMI ZUMALABE
 FUNDAZIOA.
 943 27 55 61**

• **GAUEKOAK, asteburuko gauetan**
aisialdiaz gozatzea.



UDAZKENA 2001. Ostiral eta
 larunbatero GAUEAN, 22.00eta-
 tik 3etara
 Aldabe gizarte etxea www.gauekoak.org

• **UDAKO EUSKAL
 UNIBERTSITATEA:**
SEXOLOGIA EUSKAL ESKOLA-2002

Izen-ematea: azaroaren 23ra arte
 Matrikula: azaroaren 26tik abenduaren
 26ra arte
 Informazioa: 943 82 14 26 (UEUko Ikastetxe Nagusia).



• **MONTSERRAT ROIG-I OMENALDIA**
Rosa Montero-ren hitzaldia
 Azaroaren 15ean
 Villa Suso jauregian - 19.30etan.
 Forum Feminista 'María de Maeztu'-k antolatuta

• **EUSKO IKASKUNTZAREN XV. KONGRESUA**

"Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak"
 • Donostian, azaroaren 28tik 30era - INFORMAZIOA: 943 31 08 55

• **KERAMIKA Erakusketa: "BERBETAN"**
IÑAKI JAUREGIALTZO. ZALDUONDOKO LAZARRA-
GA JAUREGIAN. AZAROAREN 18ra arte

Berbetan artisautzan eta buztigintzan etengabeko bilakaera,
 sakonketa eta proiektio baten emaitza da Iñaki Jauregialtzo
 artisau oñatiarrarentzat.

80. hamarkadan ekiten dio artisau honek iblibide honi, for-
 makuntza erabat autodidakta izan duelarik, hala ere ontzigin-
 tza tailerretan hartzen du eskarmentua. Formak, buztin ezber-
 dinak, engobeak, esmalteak lantzen eta ikertzen dituelarik.

Iñakiren tornoaz egindako lanek islatzen dute euskal buztin-
 gintzaren tradizioarekiko konpromisoa. Zeramika tradizionala-
 ren aztarnen ildotik bide berriak ausnartzen ditu jarduera
 honetan.

BERBETAN bertsolarien eta buztinen hizkuntzak bat egiten

"HIKAATENEOAREN"
INAUGURAZIOA

(Zutik-ek zabaldutako gune soziopoliti-
 kokulturala). Pinto kalea, 13 (lehengo
 Zuloa liburutenda)

AZAROAREN 9an, ostirala, 20.30etan

Ekitaldiak hilero: erreztaldiak,
 hitzaldiak, bideo emanaldiak, mintegiak,
 mahainguruak...

Azaroaren...

- 15ean.** "Ezkerra eta Institutioak".
 Mahaingurua
 (IU-EB/ BATZARRE/ BATASUNA)
- 16an.** Poesia Erreztaldia
- 22an.** Javier Ortiz El Mundo-ko
 zutabegileak "Diario de un
 resentido social" liburua
 aurkeztuko du.
- 23an.** Alfonso Voladoren hitzaldia,
 Islam-en inguruan.
- 27an.** Okupazioaren inguruko liburu
 baten aurkezpena eta hitzaldia.
- 29an.** Dolores Julianoren hitzaldia:
 Prostituzioa eta emigrazioa

dute. Buzin ezberdinez bertsolarien bete-
 behar desberdinak irudikatzen ditu:
 banaka, binaka edo hirunaka bete behar
 dituzten lanak irudikatuz.

Erakusketa honetan, eskuz eginiko 30
 koadro daude ikusgai. Buztin ezberdine-
 tako plakak lantzen ditu, figuren formak
 moldatuz. Pieza guztiak egosiak eta
 esmaltatuak daude, 1000°Ctan, argi inda-
 rreko labeen.

• **EMAIZE Sexologia Elkarte:**
Sexu Heziketari buruzko
Formazio Ikastaroa

Azaroaren 26tik abenduaren 2ra
 Informazioa: 945 265896
 e-posta: emaize@euskalnet.net



HITZETATIK EKINTZETARA!

Gaur eta hemen,

BAKEA, AKORDIOA eta ELKARRIZKETA!





100 haur kanta

Piter Ansorenak aukeraturiko haur kanta zahar eta berriak

Takolo, Pirritx eta Porrotx

Kixki, Mixki, Kaxkamelon

Tximeleta Mendian

Katuen Testamentua

Ran roberran

Almona Josefina

Txirula Mirula

Betizu

Pinlto Pinlto

Txirri, Mirri eta Txiribiton

Plisti plaut

Gora, gora

Tele-kantak

Urriaren 27tik aurrera

larunbatero eta igandero

+ 595 pezeta
24 libera

8 CDz osaturiko bilduma

Egunkaria

AZAROAREN

9an



Arratsaldeko
7.00etan
Armentia
Ikastolan

Itzal antzerkia

Errekamari



ARABA EUSKARAZ-2002-k antolatuta

KULTUR ERROTA

(Umeentzako antzerkia Pagopie antzerki taldearen eskutik)

Sarrerak Armentia Ikastolan salgai:

aurreko astean (17.00etatik 18.00etara). 500 pezetan

"GEUk 5 sarrera oparitzen ditu"

DEITU lehenbailehen

Laguntzaileak: GEU elkarteak • GEU aldizkaria

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa